

Getxoko Bigarren Eskuko Liburu Azokan ateratako dirua jaso du Atfal elkarteak

Getxoko Bigarren Eskuko Liburu Azokan lortutako dirua, 11.114 euro, eman dio gaur Atfal Sahararen aldeko elkarte getxoztarrari Imanol Landa alkateak. Garapenerako Lankidetza Sailarekin elkarlanean, joan den maiatzaren 21etik 24ra egin zen Getxoko liburutegiek antolatutako ekimena. Orotara 1.200 bat liburu egon ziren salgai prezio sinbolikoan, euro batean gutxi gora behera. Atfal elkarteak jasotako dirua Tindoufeko (Aljeria) saharar errefuxiatuen kanpamenduetako herritar elbarriak laguntzeko proiekturako izango da. Egitasmoaren helburua saharar ezinduen bizitza kalitatea hobetzea da eta horretarako hainbat jarduera aurreikusten dira, tartean, 'lankide boluntario espezializatuek laguntza zuzena eskaintzen segitzea, biltegi txikia eraikitzea, kanpamenduetan dauden hezkuntzarako materialak hobetzea, psikomotrizitaterako gelak martxan jartzea, zurgindegiko eta joskintzako tailerren lana sustatzea eta jakiak eta garbitasunerako materiala erostea', Julio San Roman elkarteko bozeramaleak azaldu duenez. Argazkian, San Roman eta Landa txekia eskuan.

Imanol Landa alkateak adierazi du 'ekimena zirkulu solidario perfektua dela, liburuak getxoztarrek emandakoak direlako eta salmentatik ateratzen den dirua proiektu solidario batera doalako'. Gainera, agertutako elkartasunagatik eskerrak eman dizkie herritarrei udal agintariak, 'pozteko arrazoia baita bildutako diru kopurua urtez urte hazten doala ikustea eta horrek Getxo udalerri solidarioa dela erakusten du'. 2009an, 11.114 euro lortu dira; 2008an 10.258 euro atera ziren; 2007an 6.058 euro eta 2006an 6.400 euro. Landak Atfal elkarteari ere eman dizkio eskerrak, saharar errefuxiatuen kanpamenduen egoera arintzen laguntzeko egiten ari den lanagatik.

Saharar umeak

Saharar ezinduak laguntzeko proiektua 1997an sortu zen. Aurreko udan euren etxeetan saharar umeak hartu zituzten familia batzuek eratu zuten Atfal elkarte. Besteak beste, 'Oporrak bakean' programarekin batera, Euskal Karabana solidarioan parte hartzen du urtero errefuxiatuen kanpamenduetara materialak eramateko, kooperazio egitasmo batzuetan parte hartzeaz gain. Aurten 16 neska-mutilek igaroko dute uda familia getxoztarrekin. Larunbat honetan, uztailak 11, helduko dira Loiuko aireportura.